

JARDUERA

BAKEAREN KOLOREAK

Zergatik da zuria bakearen usoa? Beste kolore bat duten usoek ere bakearen uso izan nahi dute! Lagun iezaiezu!

Helburuak

- Bakearen Eguna ospatzea (urtarrilak 30).
- Sormena sustatzea eta adierazpen plastikorako ahalmena garatzen laguntzea.
- Bakearen inguruan estereotiporik ez duen ikuspegi bat sustatzea.

Behar diren materialak

- 1. eranskina: koloreztatzeko usoa.
- Arkatzak, argizariak edo koloretako margoak.



URTARRILAREN 30A
Bakearen Eguna

Koloretako usoak

Bakearen Eguna ospatuko dugula azalduko diegu gure ikasleei, eta horregatik, gela usoekin apainduko dugula adieraziko diegu, bakearen eta indarkeria ezaren sinbolo unibertsala baita usoa. Bakea irudikatze mokoan olibondo-adartxo bat daraman uso zuri bat erabili ohi da, baina munduan kolore guztietako usoak daude eta guztiak izan daitezke bakearen sinbolo. Ospa ditzagun bakearen koloreak!

- Banatu uso baten silueta duen fitxaren kopiak (1. Eranskina), haurrek irudimena erabili eta gustukoaren dituzten koloreekin margotzeko.
- Nahi izanez gero, kolore desberdinetako usoen argazkiak erakutsi ikasleei, iradokizun moduan. Usoen irudi pila aurkituko duzue Wikipedian:
<http://commons.wikimedia.org/wiki/Columbidae>
- Marrazkiak bakearen aldeko mezuekin osatuko ditugu eta gelan edo ikastetxean ondo ikusten diren leku batean jarriko ditugu.
- Gure uso multzoa ez litzatekeela politagoa izango uso guztiak zuriak balira?



Atera argazkiak jarduerari edo bideo bat grabatu, ikastetxeko blogean edo egunkarian argitaratzeko edo sare sozialetan zabaltzeko.

